

59.

zenbakia

2022ko maiatza

debaldeko alea

www.kotarro.eus

kotarro

Garean-Agenda

ZIRKU TAILERRA

Maiatzak 21, 11:30

Puitxorekin

Txosnagunean

TXOKOLIPUINAK

Maiatzak 31, 17:30

Alfonso Ugarte aretoa

(Los Llanos Kulturagunea)

IRAKURRI, GOZATU, BERTAN EROSI ETA OPARITU KANPAINA

Martxoaren 15etik maiatzaren 31ra

LIZARRAN KANTUZ

Maiatzaren 28an



BESTE ERAGILEEN AGENDA

Maiatzaren 20tik 25era

Gazteriaren Festak

Lizarra

Maiatzak 28

Joskintza tailerra haurrentzat

Deierri

Ekainaren 18tik 27ra

"Hemen baditun 14" erakusketa

Oteitza

Ekainaren 18tik 27ra

"Hemen baditun 14" erakusketa

Oteitza

Ekainak 21

Bertso-bisita gidatua

"Hemen baditun 14" erakusketa

Oteitza

Ekainak 25

Irriherriren euskararen eguna. Oteitza

Udafest jaialdia. Lizarra

Dei-herri jaialdia. Las Casetas

(Deierri)



Bi urteren ondotik... Bueltan dira txosnak, kintoak eta festa txikiak!

Aurten ospatuko dira berriz ere Lizarrako Jai Txikiak. Berarekin batera, Txosnetan egitarau oparoa antolatuko da bosgarren aldiz jai hauetan. Pandemiaren ondorioz jaiak bertan behera geratu dira eta jai herrikoiak beraiekin batera. Aurten gogotsu, ilusioz eta lan handiarekin bueltatu dira. Kintoen belaunaldiak ere antolatu ditu ekimenak jaiei begira eta 2020an egingo zutenek prestatu dute aurtengo egitaraua

Zenbaki honetan, besteak beste, Txosnen antolaketari erreparatu nahi izan diogu, hiru ikuspegitatik. Lehen, antolatzailer boluntario bat elkarrizketatu dugu: txosnen baloreak, elkarlanaren zapore gehigarria... bigarrena txosten muina diren kontzertuetako talde

ezagun bat: Zaunka! eta izenak dioen bezala, aurrez aurre, probokatzaile eta ozen ekiten diote musikaren bitartez gizartea eraldatzeko asmoz. Eta hirugarrena Puitxo, zirkua eta berezko duen goxotasunarekin txosnetan parte hartzeko aukera erraztuko die belaunaldi gazteenei.

Txosna hauek "Txiki" dute abizena, txikiak baitira iraupenean, baina bonboiak eta lurrinak txikiak izanik ere lorratz sakona uzten dute ahoan eta sudurrean. Ematen du halakoxeak izanen direla aurtengo txosnak, bonboia-jatea bezain labur, une bateko lurrina bezain azkar, baina guztiz intentso eta bizigarri.

Bi urteko geldialdiaren ondotik, jai txikiak izanda ere, giro handia espero da Lizarrako karriketan!

Txosnak:

«Guztiok gozatu ahal izateko» espazioa

Aurtengo txosnen antolaketan buru-belarri dabilen Samu Guardaminorekin egon gara proiektua gertuagotik ezagutzeko.

Aurten Lizarrako jai txikietako txosnetara hurbiltzen denak zer aurkituko du?

Lehenik eta behin, Lizarrako Txosnetan beti sortzen den giro ona. Ostiralean eta larunbatean hainbat estilotako kontzertuak egongo dira. Ostiralean jaiei hasiera emateko ekitaldia egingo da kontzertuak hasi aurretik, eta larunbatean goizetik egongo dira ekintzak: haurrentzako zirko tailerra Puitxorekin eta ondoren bermutean disfrutatuko "Zaunka" taldearen kontzertuarekin. Ondoren, Pikutara ekimenak prestatuko du bazkaria eta arratsaldean kalejira: Txosnagunean hasi eta, Lizarran barna ibili ostean, txosnetan amaituko dugu berriro ere. Eguna amaitzeko, kontzertuak eta disfrutatuzera!

Zure denbora librearen zati bat lagunekin zerbeza bat hartzen, familiarekin, kirola egiten... inbertitu beharrean bileretan eta prestaketa-lanetan eman duzu. Zein da txosnetan parte hartzeko daukazun motibazioa?

Txosnetan zuk zeuk parte hartzen duzunean, beraien parte ere sentitzen zara. Pertsona bakoitzak gaitasun ezberdinak dauzka eta guztion artean, lan kolektiboaren bitartez, proiektua aurrera ateratzeak eta emaitza ikusteak, zure lanaren emaitza islatuta ikusi ahal izateak, gogo eta indar handia ematen dute txosnetan parte hartzen jarraitzeko. Gainera, normalean Lizarran izaten dugun jai-eredutik aldentzen da txosnetako jai-eredua, hau osasuntsuagoa, erasorik gabekoa eta errespetuan oinarritzen baita.

Gazteek antolatutako ekimena izanagatik, haurrei ere ematen zaie txosnagunean tartea. Festagioren egitarauaren parte dira, nolabait. Zergatik?

Adin eta pertsona guztiontzat sortzen dugun espazioa delako. Bilatzen dugu guztiok gozatu ahal izateko



tarteak egotea adin guztietarako ekitaldiak eskainiz. Haurrek eta helduek disfrutatu ahal izateko. Gainera, haurrek txikitatik ezagutu dezakete beste jai eredu bat posible dela, beraiek parte hartu ahal dutena. Izan ere, noizbait, muntaketan eta antolamenduan ere parte hartuko dute.

Zein da euskarari ematen diozuen garrantzia eta nola islatzen da praktikan?

Euskararen presentziari garrantzia handia ematen diogu, uneoro. Gure sare sozial, egitarau, komunikatu, argitalpen... guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egiten ditugu, euskarari lehentasuna emanez. Gure egitarauan ere, kontzertuak aukeratzeko unean, baldintzetako bat da talde bat gutxienez euskalduna izatea. Honetaz gain, txosnetara etortzen den edonori euskaraz erantzun ahal izango zaio.

LIBRERIA-PAPELERIA



LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA



PI. Zugarrondo, 6 • ABARZUZA • 948 520 138

Zaunka musika taldea

Emakumeak, musika eta euskara

Nola eta zergatik sortu zenuten Zaunka taldea? Zergatik izen hori?

Zaunka oso modu organikoan sortu zen, helburu zehatzik gabe. Egun batean kalean jotzeko elkartu ginen ia elkar ezagutu gabe eta ordutik musika egiten dugu elkarrekin. 2020ko abendua zen, Egakumek mikro ireki ez-misto bat antolatu zuen eta elkarrekin oholtzara lehen aldiz igotzera animatu ginen. Hala ere, 2021eko ekainera arte ez genuen lehen aldiz Zaunka bezala jo. Lizarran Harrotasun Egunean (LGBTIQ+) jotzeko proposatu ziguten eta hilabete batean erreperitorio guztia prestatu genuen. Izenaren aukeraketari dagokionez, momentu horretan Rigoberta Bandinik *Perra* abestia atera zuen eta hirurok oso identifikatuta sentitu ginen letrarekin. Horregatik, bururatu zitzaizkigun izen proposamenetatik, gehien gustatu zitzaiguna *Zaunka* izan zen.

Musika, emakumeak eta euskara, nola ulertzen duzue hirukote hori?

Musika, eta kultura orokorrean, ez dira emakumeentzako eta euskararentzako gune seguruak, ezta erosoak ere; ahalegin berezia egin behar da gaur egungo kulturaren emakumeen eta euskararen presentzia aldarrikatzeko. Baina ezinbestekoa da; azken finean, eszenatokia espazio publikoa da, botere-espazio bat da, eta okupatu egin behar dugu gure ahotsak ere entzun daitezen. Musika euskaraz egitea eta musika egiten duten emakumeak izatea, berez, ekintza politikoak direla esan dezakegu, hegemonikoa den kultura patriarkalarekin apurtzen dutelako. Era berean, uste dugu garrantzitsua dela euskal musikagintzan erreferente diren eta espazio horiek gureak ere

badirela aldarrikatu duten emakume guztiak aitortzea eta ikusaraztea. Eskerrak ematen diegu, guk errazago izan dezagun, borroka eginez ireki diguten bideetatik.

Zein dira aurrera begira talde bezala dituzuen asmoak? Ba al duzue proiekturik esku artean?

Pixkanaka goaz, ez da erraza sorkuntza eta artea lanarekin, prekarietatearekin, militantziarekin, zaintzarekin... uztartzea. Bizi garen gizarte kapitalistak ekoizpenaren ezinezko erritmoak eskatzen dizkigu, kulturaren eremuan ere. Gaur egun badirudi gauzak etengabe egiten aritu behar garela, abestiak argitaratzen, sare sozialetan presente egoten, baina guk gure erritmoak errespetatzen saiatu nahi dugu, kanpoko inposiziorik gabe. Momentuz, pare bat abesti propio ditugu grabatuta, laster argitaratuko ditugunak, kide sortzaileek egindako bideoklipekin batera, eta datozen asteotan hainbat kontzertu ditugu programatuta. Gure soinu propioa esploratzen eta musika sortzen jarraitzeko gogo handia dugu, bide honetaz gozatzen jarraitzeko.

Lizarrako Txosnetan jotzeak ba al du garrantzia berezirik zuentzako? Zergatik?

Bai, aspalditik parte hartzen dugu txosnen antolakuntzan eta oraingoan artista gisa eszenatokira igotzea oso berezia da guretzat. Erakusleihoa da oraindik ere entzun ez gaituzten guztientzat, eta zer egiten dugun erakusteko aukera paregabea. Gainera, uste dugu garrantzitsua dela oholtza gainean emakumeen presentzia bermatzea, eta mezu hori helarazteko espazio horretan gu egoteak ilusio handia egiten digu.

Zirkua, poza eta Puy festa? Puitxo!



Zerk bultzatu zintuen antzerkia eta ikuskizunak egitera haurren entretenimendurako?

Txikitan Kilkarrak taldearen eskutik antzerkia esperimentatu nuen, gero zirkua ezagutu nuen eta urteetan Zirku eskoletan trebatu nintzen profesional izatera iritsi arte. Hogei urte daramatzat mundu artistiko honetan eta nire lehen esperientzietan jakin nuen oso lotura sakona eta berezia nuela hurrekin. Publikorik zailena izan arren, hurrekin oso ongi lan egiten dudala konturatu nintzen. Antzerkia oso kanal indartsua da imaginario kolektiboarentzat, eta tresna terapeutiko handia. Balioak landu, emozioak transmititu eta egiten ditudan ikuskizun eta tailer guztietan lotura pedagogiko bat sortzera bideratuta egon da nire ibilbide profesionala.

Zertan datza orain zure proiektu artistikoak, zein da egiten duzun lana eta zein dira etorkizunera begira dituzun erronkak?

Nire proiektu artistikoa bi norabidetan garatu da: eszenatokiak eta zirkuko pedagogia. Gaixotasun arraro bat daukat eta denboraldi batez gelditu behar izan nuen, baina gaur egun nire eskaintza kulturala berriro martxan jartzen ari naiz. Alde batetik, haur eta familientzako zirku eta antzerki animazio eta ikuskizunak. Bestalde, tailer ibiltariak, zirku eta antzerki klase erregularrak eta ipuin kontalari, txotxongilo, clown eta emozio ikastaroak. Nire

helburuak bi dira: lehen, euskarazko eta kalitatezko zirkua eta antzerkia sustatzea eta zabaltzea. Bigarrena, eszenaren esparruan emakumeen lana ikustarazi eta duintzea da.

Zer garrantzi du hurrekin euskarazko sorkuntza lantzeak? Zer ekarpen egiten diozu euskarari?

Keinu bidezko ekintzak, testuarekin batera, botere handia du giza psikean, eragina du gure alderdi onirikoan eta informazioaren asimilazio terapeutikoa errazten du. Niretzat oso garrantzitsua da nire lanarekin euskara modu ludiko, pedagogiko eta dibertigarrian zabaltzea, are gehiago adin txikietan, hurrek euskaraz gozaten duten bitartean hizkuntza ikastera murgiltzea.

Lizarrako txosnetan aritzeak garrantzi berezia du zuretzat? Zergatik?

Asko hunkitzen nau Lizarrako txosnetan lan egiteak, bi arrazoirengatik. Alde batetik, gure garaian horrelako jarduerak antolatzerik ez bagenuen ere, gaur egun, Lizarrako Txosnen programazioaren barruan haur eta familientzako gune batez gozatzeko pribilegioa dugu. Bestalde, ni hasi nintzenean Lizarran ez zegoen zirkua ikasteko aukerarik. Oso zaila zen horrelako prestakuntza lortzea, eta nik kanpora joan behar izan nuen ikastera. Ohore bat da niretzat nire lan artistikoa eskaintzea Lizarrako txosnetan eta are gehiago nire jaioterriko haurrentzat.



«Lizarran Kantuz ekimen beteteranoa dugu. Lehen aldiz 2007ko ekainaren 23an atera zen plazara, Rafa eta Isabelen musikarekin eta Luisferrek gidatuta. Egun, Koldo Viñuales dugu gidari, eta hari egin diogu elkarriketa hau».

Lizarran Kantuz: 11 kantu eta kontu

Antolatzaile gisa, zertan datza zure lana Lizarran Kantuzen?

Kantuz bat prestatzea ez da soilik abeslarien eta musikarien arteko koordinazioa, askoz konplexuagoa da. Aurretik kantuen aukeraketa egiten da, aski ezagunak diren kantuak eta berriak tartekatuz. Entseguetan kantak lantzen dira eta partaideei horien bideoak bidaltzen dizkiegu etxean entzuteko. Kantuz egunean abestien zerrenda banatzen da, kantaldian laguntzeko.

Aspalditik hileko azken larunbatean Baxe Nafarroa kalean biltzen garela. Hala ere, euskara eta euskal kultura bultzatu nahi duten taldeengandik eta elkarteetatik beti hurbil egon garenez, kantaldi bereziak ere antolatu izan ditugu: Inauterietan, herriko jaietan, gazteek antolaturiko Euskal Herria egunean, Abenduko Euskararen egunean...

Jarduera ikusgarria da, Ega hiriko erdiguneko karrika eta plazetan euskaraz ibiltzen dena. Parte hartzaile askok, baina, ez dakite euskaraz, Kantuzek zer ematen dio euskaldunei eta erdaldunei?

Nahiz eta Kantuzen euskaldunen kopurua oso handia ez izan, euskal giroa sortzeko ahaleginak egiten ditugu. Euskaldunok karrketan euskaraz ozen aritzen garen bitartean, erdaldunak kantuen bidez murgiltzen dira euskal munduan.

Euskaldunok betidanik gustuko izan dugu bazkalondoetan, tabernetan eta jaietan kantu zaharrak abestea. Euskara galdu den herri bateko karrketan euskal kantak entzutea gauza zoragarria da eta entzule askorengan euskal sentimendua berpiztu egiten du. Bisitariak askotan gurekin kantatzen dute eta baita txaloka agurtu ere. Kantuen bidez euskaldunen arteko mugak desagertzen dira.

Bitxikeriren bat gertatu al zaizue inoiz?

Agian gehien harritzen gaituena jaietako Kantuzen herritarren parte hartze handia izan da. Horietan, hunkitu egin gaitu euskaltzaleek *Xalbadorren Heriotzean*, *Erribera* edo *Eperrak* zer nolako zirraraz abesten dituzten entzuteak.

Etokizunari begira, asmo bereziren bat al duzue?

Azken urteotan, Lizarraldean, Kantuzak herri askotara zabaldu da, Oteitzan, Lerinen edota Villatuertan aritu gara. Hala ere, gazteen falta sumatzen dugu. Bestalde, azken boladan ezin izan dugu entseatu, baina martxoan berrekin diogu eta ostegunero 19:00etan Ikastolan biltzen gara. Azkenik, gure kalejirak alaitzeko musikariak behar ditugu. Bertako akordeolariei eta trikitilariei deialdi berezi bat luzatu nahi diegu duela 17 urte martxan jarri zen Lizarran Kantuz eder hau ez dadin.



Foto-inkesta

1. Azken bi urteetan bertan behera geratu dira jaiak. On edo kalte egin digu honek?
2. Zer da gustokoen duzuna jai txikietan? Zergatik?
3. Zein trikimailu erabiltzen duzu bestondoari aurre egiteko?



Amaia Izkue

1. Kaltegarria izan da momentuan zaila zelako jende ezberdinarekin elkartzea eta sozializatzea. Baina, batez ere, kalte egin die festetan lortutako diruari esker lan egiten duen jendeari eta diru horren beharra duten talde edo kolektiboak.
2. Gehien gustatzen zaidana sortzen den giro herrikoia da, gazteek antolatutako bestak direlako eta denok elkarrekin egoten garelako, izan txosnetan edo izan kintako ekintzetan.
3. Oheratu aurretik tripa janariz eta urez betetzea ondo dator bestondoa murrizteko. Baina hurrengo egunean parranda badago, onena da ajeari denborarik ez ematea eta berriz erritmoa hartzea.



Oier Agirre

1. Nire ustez ez digu ez on ez kalte egin. Azkenean, bi urte hauetan egun honetan ez ateratzera ohitu gara eta aurrera jarraitu izan dugu. Benetan kalte egiten diguna pandemiaren gerostik ezarritako neurri autoritario eta oztopo guztiak dira. Horren adibide dira herri askotan txosnak jartzeko debekuak eta trabak.
2. Jai txikietatik gehien gustatzen zaidana sortzen den giroa da: sozializazioa, dantza, abestea... Lizarrako jendeak gogo handiarekin hartzen du egun hau eta hori kalean nabaritzen da.
3. Egia da azkenaldian ez dudala bestondo handirik izaten, baina kafea hartzera ateratzea izango zen erabiltzen dudana "trikimailua". Hala ere, gauean ateratzen denak badaki hurrengo egunean zer datorren... miseria pasa.



Neli Ganuza


1. Egia esan, bere alde txarrak eta alde onak izan ditu, izan ere, nahiz eta balio izan digun dirua aurrezteko (behintzat nire kasuan), poztasun handiz hartu izan ditugu jaiak betidanik, eta pena handia izan da azken bi urteetan jaiak ez egotea, beraz, aurten gogotsu hartuko ditugu!
2. Gehien gustatzen zaidana lagunekin berriz elkartzea da, hau da, hainbat hilabete ikasketekin edo lanarekin oso lanpetuta ibili ondoren, oso pozgarria da horrelako asteburu batean koadrila osoa elkartzea.
3. Ez dut uste bestondoari aurre egiteko formula sekreturik dagoenik, hala ere, normalean egun osoa etxean ez egoten saiatzen naiz, izan kafe bat hartzen, lagunekin kanpoan afaltzen... Horrela, bestondoa askoz amenagoa egiten da.



Hegoi Caballero

1. Onik egin ez duela esango nuke, gainera, urte hauetan egon den egoera ikusita, kalera berriro irteteko aukerak oso mugatuak izan dira, batez ere, jaialdiei dagokienez.
2. Batez ere berezia egiten zait txosnetan egoten den giroa, bertan antolatzen diren kontzertuengatik eta gune autogestionatu batekin duen esentziagatik. Kontuan izanda ere, bertan ezagun askorekin elkartu ahal zarela beti.
3. Batez ere ura edatea eta eginbeharrik egotekotan, kafea.





denborapasak

Gurutzagrama


Gerra

Goitik behera

- 1- Gatazka.
- 2- Gerra eza.
- 4- Defentsarako, zulo.
- 5- Ezkutu eta ...


Ezker eskubi

- 3- Aire-airekoa.
- 6- Gerra-toki.
- 7- Eskopeta, fusila.
- 8- Gerraren ondorioak.



Euskal glifoa

Gerra dagoen herrialdea



Bertso zutabea

Gerra

Bertsolaria: Pello Etxaniz

Elkarri izanez gero
gorroto ta herra
itsu-itsu hartzen da
erabaki okerra
indarkeria artean
hitza da alferra
munduan nork agindu
piztu dute gerra

Bestelako iritzirik
ez digute utzi
benetako aurpegia
dute erakutsi
ahots bakarra dago
askatasun gutxi
egia da galtzaile
gezurra nagusi

Defentsa aitzakian
jo da atakea
gure irtenbidea
armak ematea
denek gerra nahi dute
baztertuz bakea
elkar ulertzeari
ireki atea.

Puy festak, festa txikiak, kintoen festak, txosna txikiak, gazteriaren festak... izen bezainbeste txoko eta une izanen ditugu festa hauetan disfrutatzen, ikusi, ikusi:

TXOSNA TXIKIAK, egitaraua:

OSTIRALA

- 20:00 Ekitaldia Larraiza dantzari taldearekin.
- 21:00 Kontzertuak: Ekintza 16, Sorkari, Leizeak.

LARUNBATA

- 11:30 Haurrentzako zirko tailerra: Puitxo
- 13:30 Bermuta + Kontzertua: Zaunka
- 15:00 Bazkaria
- 18:00 Kalejira
- 20:00 Kontzertuak: Vita Viñaras, Burutik, La eskolta, Against you, Dark Eider, Unai Kox

KINTOAK, egitaraua:

LARUNBATA

- 12:00 txupinazoa eta jarraian bermuta Jurramendi txarangarekin
- 15:00 Herri bazkaria
- 18:00 Kopa erronda Jurramendi txarangarekin
- 22:30 Feelback events
- 01:00 Larrain dantza



UDAL EGITARAUA, laburrean:

OSTIRALA

- Foruen plazan 20:00 Txistulariak eta 22:00 Zezensuzkoa

LARUNBATA

- 12:15. Jurramendi Txaranga eta Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.
- 16:30-19:30. Los Llanos Kulturaguneko Lorategian: Kulki kultur-kirol holas parkea.
- 18:00 Entzierroa.
- 19:00 Bigantxa askatzea.
- 20:15 Dantzarien desfilea Udaletxetik abiatuta. Eta Foruen plazan:
 - 20:30 "XX Larrain Dantza Eguna",
 - 22:00 Zezensuzkoa
 - 23:00 Dj-a

IGANDEA

- 08:00 Entzierrollotxoa.
- 09:00 Entzierroa.
- 10:30 Udaletxetik abiatuko da erraldoi eta buruhandien konpartsa.
- 20:00 Foruen plazan gaita-kontzertua.

ASTEARTEA

- 19:00-21:30 "Alkaburua" txaranga karriketan barrena.
- 21:00 Foruen plazan gaita-kontzertua.
- 22:00 Foruen plazan zezensuzkoa.

ASTEAZKENA

- 08:00 Dianak gaitero, txistulari eta, jarraian, Lizarrako Musika Bandaren eskutik.
- 10:30 Udabaltzako kideak ateratzea.
- 12:30-14:00 Alkaburua txaranga.
- 14:30 Santiago plazan herri bazkaria «XII Txerrikumearen Gorazarre Eguna».
- 16:30-19:30 Koroatze plazan haur jolasak eta haize gazteluak.
- 17:00 Santiago plazan musika: "Chuchín Ibáñez".
- 18:00 Remontibal pilotalekuan Emakumeen Pilota: omenaldia bertako eta inguruko emakume pilotariei

Kotarro

59. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.